

## **28. ALDIZKARIA - 2009ko martxoaren 6a**

### **• II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **○ 2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK ETXARRI ARANATZ**

### **Espetxeratuak direnen senideak garraiatzeko diru-laguntza arautzen duen udal ordenantza. Behin betiko onespena**

Udalak, 2008ko urriaren 2ko osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Espetxeratuak direnen senideak garraiatzeko diru-laguntza arautzen duen udal ordenantza.

Onespenaren erabakia 2008ko 138. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, azaroaren 12an. Jendaurreko epean aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoan, delako ordenantza behin betiko onetsi da, baita xedatu ere osorik argitara dadila, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu zuen hartan, xedatutakoari jarraituz.

Etxarri Aranatzen, 2009ko urtarrilaren 7an.-Alkatea, Maider Goñi Errazkin.

#### **ESPETXERATUAK DIRENEN SENIDEAK GARRAIATZEKO DIRU-LAGUNTZA BANAKAKOEN ARAUDIA**

Etxarri-Aranazko Udalak arrazoia edozein delarik ere presondegian aurkitzen diren pertsonen senideek egindako laguntza eskaerak aintzat harturik, ondoko ordenantza hau onetsi du:

#### **ORDENANTZA**

Kontzeptua.-Ordenantza honetan azaltzen diren laguntzak Etxarri Aranazko Udalak emanen ditu, diru-laguntza gisa, preso senideei horiek bisitatzera joateko bidaiek ekartzen dizkien gastuen zati bat ordaintzeko eta, horrela, zigorra betetzen aurkitzen diren presondegietara joan ahal izateko.

Onuradunak.-Laguntzak honako hauek jaso ahalko dituzte:

-Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mugetatik kanpoko presondegietan dauden preso senideek.

-Preso bakoitzaren senide bakar batek jaso ahalko ditu laguntza horiek.

-Ezinbesteko baldintza gisa ezartzen da hala senide onuradunak nola presoak Etxarri Aranazen erroldaturik egon beharko dutela gutxienez laguntzak eskatu eta hiru (3) urte lehenagotik.

Laguntza eskaerekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

-Eskabide orria, preso onuradunaren senideak Etxarri Aranazko Udalari zuzendua.

-Eskatzailearen NANaren fotokopia.

-Kilometraje gastuen frogagiriak: ordainagiriak...

-Espetxearen ziurtagiria, bisita izan dela egiaztatzen duena.

Diru-laguntza zehazteko baremoa:

Oro har, laguntza eskatzaile guztiei hilean joan-etorriko bidaia bat diruz lagunduko zaie, Etxarri Aranaz eta espetxearen arteko ibilbideko kilometro bakoitzeko 0,09 euro ordainduz.

500 kilometro edo gehiagoko joaneko ibilbidea duten bidaiendako diru-laguntza kilometro bakoitzeko 0,12 pezetakoa izanen da.

Garraio pribatuaz bidaiatuz gero, trenez izan edo autobusez izan, txartelaren kostuaren ehuneko 25 ordainduko zaie, eta txartelaren bidez egiaztatu beharko dute.

Diru-laguntzen ordainketa:

Laguntzak emateko jakinarazpena ebatzi ondoren, laguntza ordainduko da, eginiko gastuaren eta espetxe-arduradunak emaniko bisitaren egiaztagiria aurkeztutakoan.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Araubide honetan ezarritako zenbatekoak urtero eguneratuko dira, aurreko urteko Nafarroako KPIren arabera. Diru-laguntza Etxarri Aranazko Udalak uneoro duen aurrekontuaren menpe egonen da, eta kontu-saila 3.500 eurokoa izanen da, gehienez ere.